



Zuengana jotzen dugu, urtero legez, uztailan egingo den **UDA 2024** kanpainari buruzko informazioa emateko. Dakizuenetz, urtero legez, hilabete horretan adinaren arabera jarduera desberdinak antolatzen dira umeentzat jolas, heziketa eta kirol arlokoak. Sakonetako kirol instalazioetan egingo dira jarduera horietako batzuk, baita herriko eta ondoko herrietako beste leku batzuetan ere. Halaber, programa honen helburu bikoitza da familia leioaztarrei kontziliazioa erraztea uda aldean.

2011 eta 2017 (biak barne) urteen artean jaiotako eta Leioan 6 hilabete baino lehen erroldatutako umeei zuzenduta dago UDA programa.

**Hautazko hizkuntza ereduak:** euskara edo gaztelania

- **Plazak:** 400 plaza hamabostaldi bakoitzean.
- **Txandak:**
  1. Uztailaren 1tik 12ra
  2. Uztailaren 15etik 30era
- **Ordutegia:** 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera. Aurten ere, familiei laguntzeko asmoz, nahi dutenek 9:00etan hasteko aukera izango dute.
- Hamabostaldiko **prezioa:** Leioa UKI-ko abonatuak: 44,00 €  
Leioa UKI-ko abonatuak ez direnak: 71,00 €  
UDA 2024 kanpainan zehar Leioako UKI-ko abonatu gisa alta emanda dauden pertsonak abonatuak izango dira.
- 2024ko UDA kanpainarako aurretiko izen ematea funtzionamendu arauak onartzea dakar, baita jardueraren baldintza eta diseinuarekin ados egotea ere.

**BALDINTZAK**

- UDA kanpainan inskribatu ahal izateko erroldatuta egon beharko dute inskripzioa hasi baino 6 hilabete lehenago
- Leioa UKI-ko abonatuak izateak, Leioako erroldako antzinatasunak eta abarrek ez dute lehentasun- eskubiderik emango kanpainako plazak esleitzeko orduan.
- Plazak zozketa publiko bidez esleituko dira.
- Itxaron zerrendak egoteak ez du esan nahi erabiliko direnik bajarik balego.
- Zozketaren ondoren, berariaz adierazi beharko da lortutako plaza onartzen dela.
- Zozketan hautatutakoaren artean bajarik egonez gero, itxaron-zerrendaren ordenaren arabera deitu ahalko da.

**DATAK**

Aurretiko izen ematea	Apirilaren 22tik maiatzaren 5era
Aurre-inskribatutakoaren zerrenda	Maiatzak 9 - 10
Erreklamazioak	Maiatzak 13-17
Zozketa	Maiatzak 20 (9:30etan)
Plaza onartzea	Maiatzaren 22tik 31ra

Izen-emateak:

Sakoneta kiroldegian, 9:00etatik 21:00etara  
Torresolo kirolgunea, 12:00etatik 21:30etara  
Egoitza Elektronikoa: [udaletxean.leioa.eus](http://udaletxean.leioa.eus)  
Herritarrentzako Arreta Zerbitzua